



2002/10/04ko prentsa-oharra

HERIOTZEN ESTATISTIKA (HERE)

2002ko lehen hiruhilekoa

2002KO LEHEN HIRUHILEKOAN, HERIOTZAK % 14,1 GEHITU ZIREN, AURREKO URTEKO HIRUHILEKO BERAREN ALDEAN

2002ko urtarril, otsail eta martxoan, 5.212 pertsona hil ziren; horietatik % 52,6 gizonezkoak ziren, eta % 47,4 emakumezkoak.

2002ko lehen hiruhilekoan, 5.212 pertsona hil ziren Euskal AEn, aurreko urteko aldi berean baino % 14,1 gehiago. Lurraldeka, Araban 605 pertsona hil ziren, Bizkaian 2.877, eta Gipuzkoan 1.730.

Urteko lehen hiruhilekoan izan ohi da heriotza gehien. Aurten, aipagarria da arnas aparatuko gaixotasunek eragindako heriotzen gehikuntza, aurreko hiruhilekoan baino % 59,3 gehiago izan baitira.

Heriotza-kausa nagusia zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren: 1.562 pertsona hil ziren kausa horrengatik (% 30); haren atzetik, bigarren heriotza-kausa gisa, tumoreak ageri dira, 1.404 heriotza eragin baitzituzten (% 26,9). Hirugarren tokia, eta urrunago, arnas aparatuko gaixotasunek hartu zuten, neguko hil haietan 704 heriotza eragin baitzituzten.

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren.

2002ko lehen hiruhilekoan gertatukoaren artean, 14 heriotza urtebetetik beheragoko haurrei egokitu zitzaizkien: 9 mutikori eta 5 neskatori.

Hazkunde begetatiboak zeinu negatiboa izan zuen 2002ko lehen hiruhilekoan, 958 pertsonako biztanle-galerarekin. Hiru lurralde historikoetan izan ziren saldo negatiboak. Izan ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleriek 41, 655 eta 262 biztanle galdu zituzten, hurrenez hurren.

Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa

	2002ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2001eko 4. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	5.212		4.570		4.569	
Gizonezkoak	2.741	52,6	2.460	54	2.399	52,5
Emakumezkoak	2.471	47,4	2.110	46	2.170	47,5
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	5.212	100,0	4.570	100	4.569	100,0
Tumoreak	1.404	26,9	1.325	29	1.369	30,0
Zirkulazio-sistema	1.562	30,0	1.483	32	1.454	31,8
Arnas sistema	704	13,5	442	10	459	10,0
Txegoste-sistema	259	5,0	253	6	236	5,2
Istripuak	148	2,8	162	4	181	4,0
Gainerako gaixotasunak	1.135	21,8	905	20	870	19,0
GIZONEZKOAK	2.741	100,0	2.460	100	2.399	100,0
Tumoreak	909	33,2	845	34	855	35,6
Zirkulazio-sistema	722	26,3	716	29	663	27,6
Arnas sistema	382	13,9	252	10	286	11,9
Txegoste-sistema	154	5,6	130	5	120	5,0
Istripuak	100	3,6	106	4	122	5,1
Gainerako gaixotasunak	474	17,3	411	17	353	14,7
EMAKUMEZKOAK	2.471	100,0	2.110	100	2.170	100,0
Tumoreak	495	20,0	480	23	514	23,7
Zirkulazio-sistema	840	34,0	767	36	791	36,5
Arnas sistema	322	13,0	190	9	173	8,0
Txegoste-sistema	105	4,2	123	6	116	5,3
Istripuak	48	1,9	56	3	59	2,7
Gainerako gaixotasunak	661	26,8	494	23	517	23,8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Teresa Ramirez de Ganza Zabalo Tel.: +34-945 017 534. Faxa: +34-945 017 501
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es	